



“ARABA GARAPEN AGENTZIA, S.A.U.”

2008KO EKITALDIKO MEMORIA

1. OHARRA.- SOZIETATEAREN JARDUERA

Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatea 1990eko apirilean eratu zen, Promoción de Infraestructuras Industriales Alavesas, S.A. izenarekin (PRINIA, S.A. siglak izanik), eta helbide hau du gaur egun: Jose Landazuri, 13-15, behea, Vitoria-Gasteiz. Sozietatearen helburua, funtsean, hau da:

“Arabako Lurralde Historikoaren industrializazioa bultzatu eta sustatzea; ildo horretatik, enpresa berriak sortuko dira eta egun daudenak hobetu edo zabaldu, industria ezin hobea lortze aldera.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko jarduera ekonomikoa ere bultzatu eta sustatu nahi du. Horretarako, lurzoru industrial, etxe-lurra eta zerbitzuetarako lurra sustatu, bultzatu, kudeatu eta eraiki egingo dira, baita instalazio eta azpiegitura turistiko eta kiroltarakoak ere, zertarako eta Arabako lurraldea eta bertako jarduera ekonomikoa garatzen eta hobetzen laguntzeko, Arabako Foru Aldundiaren jarraibideekin bat etorritz.

Arabako Foru Aldundiak, foru-erakunde autonomoek, eskubide publikoko entee eta horien elkarteek erabiliko dituzten eraikuntza-obra eta instalazioak egitea; horretarako, beharrezko aholkularitza- eta kudeaketa-lanak burutuko ditu.”

Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatea, abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretua jarraiki, sozietate multzo bateko nagusia da. Taldeko sozietateak eta elkartuak 9. oharrean zehazten dira.

Sozietatea, duen tamaina kontuan hartuta, ez du ezer kontsolidatu behar. Baina, urteko kontu bateratuak borondatez aurkezten ditu.



2. OHARRA. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Benetako irudia

Erantsitako urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik atera dira. Orokorrean onartuta dauden kontabilitate irizpideen arabera egin dira, horrela kontuek sozietatearen ondarea, finantzen egoera eta ekitaldian lortutako emaitzak zehatz-mehatz azaltzen dituztelako, bai eta ondare garbian izan diren aldaketak eta eskudiru fluxuen egoeran islatu diren fluxuak ere.

b) Aplikatutako kontabilitate printzipioak, nahitaezkoak ez direnak

Kontuan hartuta Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatearen jardueraren ezaugarriak, zenbait eragiketatarako, Kontabilitate Plan Orokorraren higiezin enpresetarako sektore egokitzapenean jasota dauden xedapenak aplikatu dira.

c) Informazioaren erkaketa

1514/2007 Errege Dekretua aplikatzen den lehenengo ekitaldia izanik, finantza orriak hasierakotzat joko dira eta ez dakarte aurreko ekitaldiarekin erkatutako informaziorik.



d) Akatsen zuzenketa

Ekitaldian zehar zuzendu diren okerren ondorioz hurrengo doikuntzak egin behar izan dira:

- Zorra gehitu da eta ondarea gutxitu, Asparrenako Udalak irabazizko hirigintza aprobetxamendua egin duelako: 328.442,00 euro. 2007ko ekitaldian egin zen zenbatespen hori.
- Zorra gehitu da eta ondarea gutxitu, Donemiliagako Udalak irabazizko hirigintza aprobetxamendua egin duelako: 198.411,64 euro. 2007ko ekitaldian egin zen zenbatespen hori.
- Egin beharreko obretarako hornidura gutxitu da eta ondarea gehitu, Asparrenako industrialdean: 638.906,25 euro. 2007ko ekitaldian egin zen zenbatespen hori.

3. OHARRA.- EMAITZEN APLIKAZIOA

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Biltzar Nagusian ekitaldiko emaitzen banaketa hau proposatuko du:

<i>Banaketa oinarria</i>	<i>Euroak</i>
- Galera eta irabazien kontuko saldoa	-3.341.246,25
- Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	-2.990.012,05
GUZTIRA	-6.331.258,30

<i>Aplikazioa</i>	<i>Euroak</i>
- Borondatezko erreserbetarako	-6.331.258,30
GUZTIRA	-6.331.258,30



4. OHARRA.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

Partidak baloratzeko eta erregistratzeko aplikatu diren kontabilitateko irizpideak ondoko hauek dira:

a) Ibilgetu ukiezina

Informatika aplikazioak erosketa kostuan balioetsi dira, eta bost urteko epean amortizatuko dira, aplikazioa erosi den egunetik hasita.

Ez da aktibatu edo kapitalizatu partida horiei lotutako gasturik.

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialean sartutako ondasunak erosketa prezioan baloratuta daude. Prezio horretan sartuta daude ondasuna funtzionatzen jarri arteko gastu gehigarriak.

Bizitza erabilgarria luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze gastuak galera eta irabazien kontura kargatzen dira zuzenean.

Finantza gasturik ez da kapitalizatu, eta ez da kosturik aurreikusi ixteagatik edo erretiratzeagatik.



Amortizazioko urteko hornidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da, ondasun bakoitzerako ondorengo taulan aurreikusita dagoen bizitza baliagarriaren arabera:

	<i>Ustezko bizitza baliagarria: urteak</i>
- Eraikuntzak	33,3
- Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	10
- Garraio elementuak	5
- Informazioa tratatzeko ekipoa	5
- Bestelako ibilgetuak (garraio elementuak)	5

Ekitaldiko amortizaziorako hornidura 42.856,85 euro izan da.

c) Higiezinetak inbertsioak

Finantza errentamenduko kontratuei lotuta dauden lurrak eta eraikinak higiezin inbertsio moduan sailkatu dira. Eskuratze prezioaren arabera baloratzen dira. Modu linealean amortizatzen dira urtean % 3 aplikatuz.

d) Errentamenduak

Sozietateak higiezin batzuk ditu errentan; erosteko aukera ematen duten errentamendu kontratuak sinatu ditu eta hauek finantza errentamendu moduan hartzen dira.

Izan ere, ez dago erosteko aukera baliatuko delako arrazoizko zalantzarik eta, beraz, errentariari aktiboaren jabetzak atxikita dituen arriskuak eta onurak eskualdatuko zaizkiola uste da.



Ordainketen balio izendatuarekin erregistratu dira, kontratu interesa dagoelako.

Kontratuak aurreko ekitaldietan sinatu zirenez, eragiketaren emaitza kontrapartidarekin erregistratu da Borondatezko Erreserben kontu batean.

Interesak galeren eta irabazien kontura egotzi dira sortu diren ekitaldian bertan, interes tasa efektiboaren metodoaren arabera.

e) **Finantza tresnak**

e.1) Taldeko enpresen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak

Taldeko sozietateetako eta elkartuetako kapitaleko partaidetzak erosketa prezioan islatzen dira. Erosketa balio hori gutxitu egiten da, horien ondare balio teorikoaren narriatze posibleengatik, funts propioen bilakaeraren eta etorkizuneko emaitzei aurreikusten zaien bilakaeraren arabera.

e.2) Finantza aktiboak

Merkataritza eragiketen eta merkataritzaz bestelako eragiketen ziozko kredituak horien arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira; hain zuzen, balio hori bat dator balio izendatuarekin, iraungitze epea urtebetetik beherakoa delako edo, mugaeguna luzeagoa izanez gero, kontratuzko interes tasa dutelako.

Aktiboa narriatzen denean, balioan beharrezko zuzenketak egingo dira eta narriatzearen zioz galera gertatuko da.



Arrazoizko balioa duten beste finantza aktiboak (gordailuak eta fidantzak) izendatuaren arabera baloratzen dira, kontratuzko interes tasa dutelako.

Finantza aktiboetan sortutako interesak galeren eta irabazien kontura egotzi dira sortu diren ekitaldian bertan, interes tasa efektiboaren metodoaren arabera.

e.3) Finantza pasiboak

Merkataritzako eta merkataritzaz kanpoko eragiketengatik ordaindu beharreko zor eta partidak balio izendatuarekin bat datorren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira.

f) Izakinak

Plan partzial bakoitzaren egoera fisikoa da abiapuntua.

Egoera hori ikusita, lurra bi motatakoa da: industria lur garbia eta jabari publikoko lurra. Biak batuta, poligonoaren azalera osoa ateratzen da.

Oro har, salbuespenak salbu, industria lurreko lur sail garbiak Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatearen (edo Foru Aldundiaren) jabetzakoak dira, edo izan dira eta industriak instalatzeko saldu dira.

Industria azalera osoa da oinarrizko kontzeptua, izakinen balioa kalkulatzeko eta urbanizazio kostuak egozteko.



Jabari publikoko lurak laga egin behar dira, eta horrenbestez, ez dute balio inbentariagarririk. Haien kostua industria lurzati garbien gainean egotzi behar da.

Sozietateak lurak erosi eta urbanizatzen ditu, industrialdeak eta eraikinak sustatzeko. Poligono eta eraikin horiek eroste balioan edo gauzatze balio garbian erregistratzen ditu (bi balioetatik txikienean, betiere). Gauzatze balioa, batzuetan, gizarte eta ekonomia eduki zabalagoko helburuen menpe dago, aurreko 1. oharrean adierazitako sozietate xedeari jarraituz. Erosketa prezioa gauzatze balio garbira zuzentzeko, izakinen narriaduragatiko hornidura hornitzen da.

Landa lurak eta industria lurzati eta eraikinak eroste prezioan edo gauzatze balio garbian balioztatzen dira (bi balioetatik txikienean, betiere).

g) Mozkinen gaineko Zerga

Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietateak % 99ko hobaria izango du zergaren kuotan, 24/96 Foru Arauak 36. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Horregatik, zerga horrek eragin inmateriala du egindako eragiketetan. Sozietateak zerga oinarri negatiboa du Sozietateen gaineko Zergan, ekitaldi horretan.

h) Diru sarrerak eta gastuak

Diru sarreraren eta gastuen erregistroan sortzaren printzipioa aplikatu da. Hau da, ordezkatzan dituzten ondasun eta zerbitzuen korrante errealak gertatzen denean erregistratu dira diru sarrerak eta gastuak, haietatik eratortzen den moneta edo finantza korrantea gorabehera.



Poligonoetako lurzati salmentetatik datozen sarrerak ezagutzeko oinarrizko irizpidea, sarrera horiek formalizazio, eskritura edo salerosketa kontratu egokia duten ekitaldian erregistratzea da. Ondorioz, ekitaldi horretara egotzen dira eragiketa bakoitzetik sortutako galera edo irabaziak, hala badagokie, 4.f) oharrean azaldutako sustapenentarako hornidura aplikatuzetik garbi.

i) Hornidurak eta kontingentziak

Eratutako hornidurak erraz antzeman daitezke, hornitutako arriskuari lotutako pasiboa ezeztatu den eguna zehaztugabea izaten delako.

Zenbatekoak hurrengo irizpideen arabera zenbatetsi dira:

- Asparrena poligonoan egin beharreko lanen hornidura, udal horrekin sinatu den hitzarmena betez. Hornidura hori kalkulatzeko aditu lokabe batek egindako azterlana hartuko da kontuan.
- Sinatutako bermeen ziozko hornidura, ekitaldia ixtean bermatu den arrisku biziaren arabera.

j) Lotura duten enpresen arteko transakzioak

Sozietateak saldoak ditu lotutako beste enpresa batzuekin eta transakzioak egin ditu.



Sozietatearen, bere bazkide bakarraren eta partaidetzat dituen enpresen arteko transakzioen balorazioan hurrengo irizpideak aplikatu dira:

- “La Blanca” eta “Samaniego zinemak” izeneko eraikinak berritzeko lanak kontraprestazio ekonomikorik gabe burutzea eta Arabako Foru Aldundiari horretarako finantzaketa ematea, alderdiek sinatutako hitzarmena betez.
- Sozietateak taldeko enpresei zerbitzuak ematea baina arrazoizko balioan: transakzioaren prezioan.
- Kreditu eta zorren korrituak, sozietateek ezarri duten kontratuzko interes tasa aplikatuz.

k) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Finantza errentamenduko kontratuei lotutako higiezinak finantzatzeko eman ziren kapital dirulaguntzak erreserbetan aplikatu dira.

l) Korronteak ez diren aktiboak, saltzeko mantendutakoak

Sozietateak saltzeko edo emateko konpromisoa sinatu duen higiezinak korronteak ez diren aktibo moduan sailkatu dira, saltzeko mantenduz.

Erosketa prezioarekin baloratzen dira, izan duten balioaren narriadura kenduta.



5. OHARRA .- IBILGETU MATERIALA

Epigrafe hau osatzen duten partidek mugimendu hauek izan dituzte ekitaldian:

<i>Kostua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Altak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Intsuldaketak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Lurrak	1.615.878,82	0,00	-430.863,50	-1.185.015,32	0,00
- Eraikuntzak	6.247.561,12	222.107,74	-1.328.030,41	-3.923.326,83	1.218.311,62
- Altzariak	66.276,98	63.363,10	-66.276,98	0,00	63.363,10
- Informatika ekipoak	89.670,69	0,00	-65.612,74	0,00	24.057,95
- Garraio elementuak	15.055,11	0,00	0,00	0,00	15.055,11
- Aribideko aurrerakinak eta ibilgetuak	6.159.113,21	431.082,55	0,00	-6.590.195,76	0,00
GUZTIRA	14.193.555,93	716.553,39	-1.890.783,63	-11.698.537,91	1.320.787,78

<i>Amortizazio metatua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Altak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Intsuldaketak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Eraikuntzak	-661.582,01	-30.459,11	0,00	509.456,34	-182.584,78
- Altzariak	-57.176,98	-4.756,57	57.176,98	0,00	-4.756,57
- Informatika ekipoak	-71.638,77	-4.811,59	65.959,15	0,00	-10.491,21
- Garraio elementuak	-12.225,52	-2.829,58	0,00	0,00	-15.055,10
GUZTIRA	-802.623,28	-42.856,85	123.136,13	509.456,34	-212.887,66

<i>Balioaren narriadura</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Altak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Intsuldaketak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Eraikuntzak	-4.098.943,18	0,00	1.328.030,41	2.770.912,77	0,00
GUZTIRA	-4.098.943,18	0,00	1.328.030,41	2.770.912,77	0,00

GUZTIZKO GARBIA	9.291.989,47	673.696,54	-439.617,09	-8.418.168,80	1.107.900,12
------------------------	---------------------	-------------------	--------------------	----------------------	---------------------



Ekitaldian egin diren mugimenduak hurrengo eragiketei dagokie:

Altak

	<i>Euroak</i>
- Bulego nagusiak handitzea	378.292,38
- Lapueblako pabiloiak	214.105,04
- Subillabideko pabiloiak	60.792,87
- Beste ibilgetu bat – Altzariak	63.363,10
GUZTIRA	716.553,39

Salmenten ziozko bajak

	<i>Kostua</i>	<i>Narriaduraren hornidura</i>	<i>Balio garbia</i>	<i>Prezioa</i>	<i>Emaiza</i>
- URA eraikinaren salmenta	1.758.893,91	-1.328.030,41	430.863,50	429.122,64	-1.740,86
GUZTIRA	1.758.893,91	-1.328.030,41	430.863,50	429.122,64	-1.740,86

Erretiroaren ziozko bajak

	<i>Kostua</i>	<i>Amortizazio metatua</i>	<i>Balio garbia</i>	<i>Emaiza</i>
- Altzariak	66.276,98	-57.176,98	9.100,00	-9.100,00
- Informatika ekipoak	65.612,74	-65.959,15	-346,41	346,41
GUZTIRA	131.889,72	-123.136,13	8.753,59	-8.753,59

Ondasun higiezinetakoinbertsioetara intsuldaketa

	<i>Kostua</i>	<i>Amortizazio metatua</i>	<i>Balioaren narriadura</i>	<i>Balio garbia</i>
- Subillabideko pabiloiak	3.967.133,70	0,00	0,00	3.967.133,70
- Casablanca pabiloia	194.833,12	-48.179,32	-70.000,00	76.653,80
GUZTIRA	4.161.966,82	-48.179,32	-70.000,00	4.043.787,50



Korrontek ez diren baina saltzeko mantendu diren aktiboetara intsuldaketa

	Kostua	Amortizazio metatua	Balioaren narriadura	Balio garbia
- Amurrioko eraikina	2.680.827,59	-80.424,83	0,00	2.600.402,76
- La Blanca eraikina	1.140.833,63	0,00	-1.140.833,63	0,00
- Samaniego eraikina	1.560.079,14	0,00	-1.560.079,14	0,00
- Lapueblako pabiloiak	210.809,25	-11.263,76	0,00	199.545,49
GUZTIRA	5.592.549,61	-91.688,59	-2.700.912,77	2.799.948,25

Finantza errentamenduko kontratuen ziozko bajen ondoriozko intsuldaketak

	Kostua	Amortizazio metatua	Balio garbia
- TAZ eraikina - Miñano	1.634.778,00	-336.990,56	1.297.787,44
- Lapueblako pabiloiak	206.077,40	-17.807,63	188.269,77
- Casablanca pabiloiak	103.166,08	-14.790,24	88.375,84
GUZTIRA	1.944.021,48	-369.588,43	1.574.433,05

- Ibilgetu materialaren ondasun guztiak daude sozietatearen jarduerari lotuta.
- Amortizazioaren hornidurak kalkulatzeko metodo lineala erabiltzen da, 4.b. oharrean jasotzen diren urteko koefizienteak aplikatuta.

Ibilgetu materialaren elementu bat ere ez da guztiz amortizatu.

- Ibilgetu materialaren ondasunek ez dute kargarik eta zargarik.
- Ez dago ibilgetua erosteko konpromiso irmorik.
- Sozietateak sinatu dituen aseguruako polizek modu egokian estaltzen dituzte ibilgetuaren elementuen balioa.



6. OHARRA.- ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

Sozietateak ondasun higiezinetakoko inbertsioen epigrafean erregistratu du errentamendurako ondasun higiezinaren balioa, berau errentamendu operatiboa denean. Hona hemen horien bilakaera:

<i>Kostua (*)</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Altak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Lurrak	884.110,96	0,00	0,00	884.110,96
- Eraikinak	3.277.855,86	166.071,52	-194.833,12	3.249.094,26
GUZTIRA	4.161.966,82	166.071,52	-194.833,12	4.133.205,22

<i>Amortizazio metatua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Altak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Eraikinak	-48.179,32	-72.597,69	48.179,32	-72.597,69
GUZTIRA	-48.179,32	-72.597,69	48.179,32	-72.597,69

<i>Balioaren narriadura</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Altak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Eraikinak	-70.000,00	0,00	70.000,00	0,00
GUZTIRA	-70.000,00	0,00	70.000,00	0,00

BALIO GARBIA	4.043.787,50	93.473,83.	-76.653,80	4.060.607,53
---------------------	---------------------	-------------------	-------------------	---------------------

(*) Ibilgetu materialaren intsuldaketa

Ondasun higiezinetakoko inbertsioetan honako higiezinak sartzen dira:

<i>Kostua</i>	<i>Lurra</i>	<i>Eraikina</i>	<i>Guztira</i>
- Subillabideko pabiloiak	884.110,96	3.083.022,74	3.967.133,70
- Barratxi kaleko pabiloiak	0,00	166.071,52	166.071,52
GUZTIRA	884.110,96	3.249.094,26	4.133.205,22

<i>Amortizazio metatua</i>	<i>Lurra</i>	<i>Eraikina</i>	<i>Guztira</i>
- Subillabideko pabiloiak	0,00	-69.431,46	-69.431,46
- Barratxi kaleko pabiloiak	0,00	-3.166,23	-3.166,23
GUZTIRA	0,00	-72.597,69	-72.597,69

BALIO GARBIA	884.110,96	3.176.496,57	4.060.607,53
---------------------	-------------------	---------------------	---------------------



- Subillabideko sustapeneko pabiloiak ondo alokatua daude edo alokatzeko ondo prestatuta daude. 2008ko apirilaren 1ean sartu dira jardueran, eraiki ostean.

Sustapenak 2008ko abenduaren 31n hurrengo egoera izan du:

<i>Pabiloiak guztira</i>	<i>Azalera guztira</i>	<i>Alokatutako pabiloiak</i>	<i>Alokatutako azalera</i>	<i>Euroak</i>	
				<i>Balioa guztira</i>	<i>Alokatutako balioa</i>
26	7.168,28 m ²	7	1.982,99 m ²	3.967.133,70	1.093.470,48

Alokairu kontratu guztiak 2008. urtean sinatu dira; alokairuen ziozko diru sarrerak guztira 40.450,32 euro erregistratu dira. Kontratuak hiru urtekoak dira. Amaitzen direnean, automatikoki suntsiarazi egingo da.

Kontratuaren lehenengo urtean, hilean 3,25 euro kobratuko dira m² bakoitzeko; eta bigarren urtetik aurrera 3,50 euro m² bakoitzeko.

Ekitaldi bakoitzean hurrengo alokairu kuotak ezarri dira:

<i>Ekitaldia</i>	<i>Euroak</i>
2009	83.285,58
2010	83.285,58
Guztira	166.571,16

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak erabaki du pabiloiak saldu ahal izango direla; hau da, kontratua indarrean dagoen hirugarren urtetik aurrera erosi ahal izango da.



- Barratxi kalean dagoen (Vitoria-Gasteiz) industria pabiloia 2008ko ekitaldian erosi da, eta alokatzeko prest dago. 2008an zehar, pabiloi hori alokatzeagatik guztira 4.265,37 euro eskuratu dira.
- Aktibo horien amortizazioa modu linealean kalkulatzen dira, eraikinen balioari % 3ko urteko koefizientea aplikatuz.
- Ondasun higiezinetakako inbertsioak besterentzean honako emaitzak lortu dira:

	<i>Kontabilitateko balioa</i>	<i>Amortizazioa</i>	<i>Balioaren narriadura</i>	<i>Salmentaren prezioa</i>	<i>Emaitza</i>
- Casablanca pabiloiak	194.833,12	-48.179,32	-70.000,00	198.294,09	121.640,29



7. OHARRA.- ERRENTAMENDUAK

2008ko abenduaren 31n, sozietatearekin sinatu diren finantza errentamenduko kontratuengatik oraindik kobratu gabe egon diren kuoten balioa behean zehazten da:

	<i>Epe luzea</i>	<i>Epe laburra</i>	<i>Guztira</i>
- TAZ Fundazioa	1.221.580,86	80.019,80	1.301.600,66
- RM Rioja, S.L.	60.816,63	4.850,36	65.666,99
- RM Rioja, S.L.	106.156,69	8.415,28	114.571,97
- Bodega Los Corzos, S.L.	58.483,07	3.318,34	61.801,41
- Raúl Pascual Acebedo	88.071,28	4.231,08	92.302,36
GUZTIRA	1.535.108,53	100.834,86	1.635.943,39

Sozietateak eta errentariak sinatu dituzte industria pabiloien finantza errentamenduko kontratuak, baina jabetza errentariari eskualdatu ahal izango zaio alokairuaren epea amaitzen denean. Horregatik, kontratuaren xede den aktiboaren arrisku eta onura guztiak errentariari eskualdatuko zaiola uste da.

Jarraian, aktiboen balioak eta eragiketen zenbatekoak zehazten dira:

	<i>Aktiboaren balioa</i>			<i>Erosteko aukera 07-12-31</i>	<i>Erreserbetara ko intsuldaketa</i>
	<i>Kostua</i>	<i>Amortizazioa</i>	<i>Garbia</i>		
- TAZ Fundazioa	1.634.778,00	-336.990,56	1.297.787,44	1.349.073,31	51.285,87
- RM Rioja, S.L.	81.863,81	-11.263,76	70.600,05	112.180,05	41.580,00
- RM Rioja, S.L.	67.377,98	-9.659,52	57.718,46	68.058,84	10.340,38
- Bodega Los Corzos, S.L.	56.835,61	-8.148,11	48.687,50	63.479,68	14.792,18
- Raúl Pascual Acebedo	103.166,08	-14.790,24	88.375,84	94.258,12	5.882,28
GUZTIRA	1.944.021,48	-380.852,19	1.563.169,29	1.687.050,00	123.880,71



Kontratuaren alderdi garrantzitsuenak honakoak dira:

- 2001eko urtarrilaren 20an, sozietateak eta Teknologia Zentro Aeronautikoaren Fundazioak Miñanoko Teknologia Parkean dagoen industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin. Kontratua 20 urterako da eta salmenta prezioa 1.631.691,23 euro. Dena den, errentariak edonoiz balia dezake pabiloia erosteko aukera, ordaindu gabe dagoen kopuru nagusia ordainduz.
- 2004ko azaroaren 2an, sozietateak eta RM Rioja, S.L. enpresak Lapuebla de Labarcan dagoen 329,78 m²-ko industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin.

Alokairua 12 urterako da eta salmenta prezioa 118.921,06 euro.

Hala ere, errentariak pabiloia eros dezake une horretan ordaindu gabe dagoen kopurua ordainduz.

- 2008ko maiatzaren 25ean, sozietateak eta RM Rioja, S.L. enpresak Lapuebla de Labarcan dagoen 215,38 m²-ko industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin.

Alokairua 9 urterako da. Hala ere, errentariak pabiloia eros dezake une horretan ordaindu gabe dagoen kopuru nagusia ordainduz.



- 2004ko azaroaren 2an, sozietateak eta Bodega Los Corzos, S.L. enpresak Lapuebla de Labarcan dagoen 181,68 m²-ko industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin. Alokairua 12 urterako da eta salmenta prezioa 65.515,13 euro. Hala ere, errentariak pabiloia eros dezake une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kopurua ordainduz.
- 2008ko ekainaren 2an, sozietateak eta Raúl Pascual Acebedo jaunak Lapuebla de Labarcan dagoen 209,15 m²-ko industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin. Alokairua 9 urterako da eta salmenta prezioa 92.302,34 euro. Hala ere, errentariak pabiloia eros dezake une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kopurua ordainduz.
- Aldi bakoitzean honako kopuruak kobratuko dira:

	<i>Euroak</i>
- Urtebetera arte:	100.834,86
- 1 eta 5 urte bitartean	603.393,03
- 5 urte baino gehiago	931.715,50
GUZTIRA	1.635.943,39

- Alokairuaren kuoten bidez kopuru nagusia amortizatu eta korrituak ordainduko dira. Kontratu bakoitzean honako korritu tasa sortu da:

	<i>Interes tasa</i>
- TAZ Fundazioa	Euriborra + 0,15
- RM Rioja, S.L.	% 4,5
- RM Rioja, S.L.	% 4,5
- Bodega Los Corzos, S.L.	% 4,5
- Raúl Pascual Acebedo	% 4,5



Epemuga heldu baino lehen sortu ez diren korrituak 445.000,00 euro dira, gutxi gorabehera.

Gainera, sozietateak, higiezin errentamendu operatiboko kontratu batzuk ditu sinatuta. “Ondasun higiezinetakoinbertsioak” izeneko 6. oharrean zehazten dira.

8. OHARRA.- KORRONTEAK EZ DIREN AKTIBOAK, SALTZEKO MANTENDUTAKOAK

Saltzeko mantendu diren aktibo korronteak eta ekitaldian izan den bilakaera behean azaltzen dira:

<i>Balio gordina</i>	<i>Hasierako saldoa (*)</i>	<i>Gehikuntzak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Amurrioko eraikina	2.680.827,59	0,00	-568.120,87	2.112.706,72
- La Blanca eraikina	1.140.833,63	2.754.593,85	0,00	3.895.427,48
- Samaniego eraikina	1.560.079,14	226.874,12	-1.786.953,26	0,00
- Lapueblako pabiloiak	210.809,25	0,00	0,00	210.809,25
GUZTIRA	5.592.549,61	2.981.467,97	-2.355.074,13	6.218.943,45

<i>Balioaren narriadura</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Gehikuntzak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Amurrioko eraikina	-80.424,83	0,00	80.424,83	0,00
- La Blanca eraikina	-1.140.833,63	-2.754.593,85	0,00	-3.895.427,78
- Samaniego eraikina	-1.560.079,14	-226.874,12	1.786.953,26	0,00
- Lapueblako pabiloiak	-11.263,76	0,00	0,00	-11.263,76
GUZTIRA	-2.792.601,36	-2.981.467,97	1.867.378,09	-3.906.691,24

BALIO GARBIA	2.799.948,25	0,00	-487.696,04	2.312.252,21
---------------------	---------------------	-------------	--------------------	---------------------

(*) Ibilgetu materialaren kontuetatik egindako intsuldaketaren ondoriozkoa da hasierako saldoa.

Korronteak ez diren baina saltzeko mantendu diren aktibo moduan sailkatu dira saltzeko konpromiso irmoa dutenak edo gero besterentzeko zorrik ez dutenak.



Hona aktiboen egoera:

- Amurrioko eraikina: 2007an eskuratu zen eta zati bat 2008an besterendu da. Eragiketa horren ondorioz 81.575,17 euroko galera izan da.

Eraikinaren gainerako zatia 2009ko urtarrilean saldu da 2.265.399,68 eurotan; honek emaitza positiboa ekarri du: 152.692,96 euro.

- La Blanca eta Samaniego eraikinak: 2005eko otsailaren 1ean Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietateari agintzea “La Blanca” eta “Samaniego zinemak” izeneko pabiloiak eraberritzeko obren kontratazioa, gauzatzea, finantzaketa (hartara, pabiloi horiek zaharberritu eta foru bulegotarako prestatuko dira, Arabako Foru Aldundiaren Arkitektura Zerbitzuak idatzitako proiektuei jarraiki) eta behar diren gainerako jarduera osagarriak.

Erabaki hori Araba Garapen Agentzia, S.A.U.k xede horretarako egokia delako eta baliabide tekniko aproposak dituelako hartu da.

2005eko otsailaren 8an, lan enkargu hori arautzen duten hizpaketak sinatu ziren; horien arabera, Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietateak jarduerak finantzatu behar zituen; emaitza, berriz, Arabako Foru Aldundiaren jabetzakoa izango zen.

2007an honela geratu dira jarduketa bakoitzaren aurrekontuak:

	<i>Euroak</i>
- La Blanca pabiloia	2.578.637,00
- Samaniego zinemak	1.602.811,21
GUZTIRA	4.181.448,21



Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2007ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Vitoria-Gasteizko La Blanca pabilioi zaharra eraberritzeko proiektua aldatzea erabaki zuen: kostua 515.533,00 euro (598.018,26 euro, BEZ barne) gehitu zen, eta proiektuaren guztirako zenbatekoa 3.094.170,00 eurotan finkatu zen (3.589.237,20 euro, BEZ barne).

2008an egindako obretarako honako zenbatekoak behar izan dira:

	<i>Euroak</i>
- La Blanca pabilioa	2.754.593,85
- Samaniego zinemak	226.874,12
GUZTIRA	2.981.467,97

2008ko irailaren 19an, Arabako Foru Aldundiak eta sozietateak erabaki zuten “Samaniego zinemak” izeneko eraikina berritzeko lanen burutzeko akta egitea eta bertan, guztira, 2.072.865,78 euroko kostua ezartzea (BEZ barne). Egun horretan intsuldaketa egin zen eta, ondorioz, sozietatearen aktiboan baja eman zen.

Bestalde, La Blanca pabilioiaren eraikina berritzeko lanak ekitaldian zehar amaitzea aurreikusi da eta gero Arabako Foru Aldundiari ematea. Egindako aginduaren arabera, sozietateak aktiboaren balio osoaren narriadura hartu du kontuan. Egiteko dauden lanen zenbatekoa 300.000,00 eurotan zenbatetsi zen.

- Lapueblako industrialdean dauden pabiloiak saltzeko dira, erosteko aukera duen errentamenduaren modalitatean.



9. OHARRA.- TALDEKO ENPRESETAN ETA ELKARTUETAN EGINDAKO INBERTSIOAK

- Taldeko enpresen, enpresa elkartuen eta beste enpresa batzuen inbertsioen balioek honako bilakaera izan dute:

<i>Kostua</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Altak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Taldeko enpresak	6.499.645,40	0,00	0,00	6.499.645,40
- Enpresa elkartuak	25.789.665,00	4.479.568,51	0,00	30.269.233,51
GUZTIRA	32.289.310,40	4.479.568,51	0,00	36.768.878,91

<i>Narriaduraren hornidura</i>	<i>Hasierako saldoa</i>	<i>Altak</i>	<i>Bajak</i>	<i>Azken saldoa</i>
- Enpresa elkartuak	-1.724.365,35	0,00	94.560,05	-1.629.805,30
- Bestelako enpresak	0,00	-98.725,50	0,00	-98.725,50
GUZTIRA	-1.724.365,35	-98.725,50	94.560,05	-1.728.530,80

SALDO GARBIA	30.564.945,05	4.380.843,01	94.560,05	35.040.348,11
---------------------	----------------------	---------------------	------------------	----------------------

- Ekitaldian zehar honakoak eskuratu dira:

Enpresa elkartuak

<i>Enpresa elkartuak</i>	<i>Euroak</i>	<i>Akzioak</i>	<i>Ordaindutako zenbatekoa</i>	<i>Ordaindu gabeko zenbatekoa</i>
- Arabako Teknologia Parke, S.A.	3.024.900,00	30.249,00	3.024.900,00	0,00
- Lautadako Industrialdea, S.A.	1.434.292,51	238.651,00	658.573,13	(*) 775.719,38
- Araba Logística, S.A.	20.376,00	566,00	20.376,00	0,00
GUZTIRA	4.479.568,51		3.703.849,13	775.719,38

(*) Ordaindu den eguna:

<i>Data</i>	<i>Euroak</i>
20.01.2009	200.000,00
20.02.2009	350.000,00
20.03.2009	225.719,38
Guztira	775.719,38

ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO, SA
ARABA GARAPEN AGENTZIA, SA





Araba Logística, S.A. enpresa prima bidez handitu zen. Akzio horien balio izendatua 16.980,00 euro da, eta 3.396,00 euro jaulkipen prima dira.

- Narriaduraren ondoriozko balorazio zuzenketen bilakaera honakoa izan da ekitaldian:

	<i>Euroak</i>	
- Arabako Teknologia Parke, S.A.	-94.560,05	Lortutako mozkinen ondoriozko zuzenketa Galeren ondoriozko hornidura
- Araba Logística, S.A.	98.725,50	
SALDO GARBIA	4.164,45	

- Sozietatearen partaidetza duten enpresen egoera jarraian azaltzen da:

Taldeko enpresak

- “Laudioko Elkartegia, S.A.”, enpresak sortu eta sustatzeko xedea du eta egoitza Laudioko udalerrian.
- Sozietatearen egoitza: Landazuri, 13-15, behea, Vitoria-Gasteiz.
- Partaidetza ehunekoa: % 89,20
- Balioa liburuetan: 5.385.609,37 euro.
- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Kapital soziala	6.037.585,90
- Erreserbak	615.148,24
- Emaizta negatiboak	-55.280,94
- Ekitaldiko emaitza	229.950,30

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.



- “Asparrenako Elkartegia, S.A.”, enpresak sortu eta sustatzeko xedea du eta egoitza Asparrenako udalerrian.
- Sozietatearen egoitza: Landazuri, 13-15, behea, Vitoria-Gasteiz.
- Partaidetza ehunekoa: % 98.
- Balioa liburuetan: 1.114.036,04 euro
- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Kapital soziala	1.135.890,00
- Erreserbak	695.298,78
- Ekitaldiko emaitza	65.172,79

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.

Enpresa elkartuak

- “Arabako Teknologia Parkea, S.A.” sozietatearen xedea enpresa ekimena eta inbertsioa bultzatu eta sustatzea da eta horretarako enpresa berritzaileentzako eta goi teknologiako enpresentzako azpiegiturak eraikitzea.
- Sozietatearen egoitza Miñanoko Teknologia Parkea (Araba) – bulego nagusiak.
- Partaidetza ehunekoa: % 33,61
- Balioa liburuetan: 15.026.389,72 euro
- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Kapital soziala	50.537.800,00
- Erreserbak	213.298,50
- Emaidza negatiboak	-6.227.616,19
- Ekitaldiko emaitza	211.212,98

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.



- “Centro Intermodal de Transporte y Logística de Vitoria-Gasteiz – CTVI” izeneko zentroaren xedea Gasteizko Garraio Zentroa eta garraiogunea sustatu, instalatu eta ustiatzea da, Gasteizko salgaien trafikoa hobetze aldera.
- Sozietatearen egoitza: Lermendabide, 8 – Jundizko Industrialdea. Vitoria -Gasteiz.
- Partaidetza ehunekoa: % 44,77
- Balioa liburuetan: 7.881.317,31 euro.
- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Kapital soziala	15.441.673,00
- Erreserbak	5.874.987,00
- Ekitaldiko emaitza	114.695,00

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.
- “Lautadako Industrialdea, S.A.” sozietatearen xedea da Agurain, Iruña Oka, Kanpezu eta Legutiano udalerrri arabarretan industria ekimena eta inbertsioa bultzatu eta sustatzea.
- Sozietatearen egoitza: Uzbina, 24 – Jundizko Industrialdea (Vitoria-Gasteiz).
- Partaidetza ehunekoa: % 46,67
- Balioa liburuetan: 3.561.875,36 euro.
- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Kapital soziala	5.990.331,62
- Erreserbak	1.371.119,20
- Ekitaldiko emaitza	48.282,10

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.



- “Aiara- Araneko Industrialdea, S.A.” sozietatearen xedea da Aiara, Laudio eta Amurrio udalerrietan industria ekimena eta inbertsioa bultzatu eta sustatzea.
- Sozietatearen egoitza: Gardea auzoa, z.g. – Cerámica eraikina, 1. ezk. - Laudio (Araba).
- Partaidetza ehunekoa: % 38,93
- Balioa liburuetan: 1.348.469,82 euro.

- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Kapital soziala	5.119.083,61
- Erreserbak	1.305.732,11
- Ekitaldiko emaitza	118.576,26

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.

- “Araba Logística, S.A.” sozietatearen xedea da jarduera logistikoetarako eraikuntzak ustiatzea.
- Sozietatearen egoitza: San Antonio, 15. Vitoria-Gasteiz.
- Partaidetza ehunekoa: % 1,95
- Balioa liburuetan: 722.651,00 euro

- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Euroak</i>
- Kapital soziala	33.766.000,00
- Erreserbak	5.853.000,00
- Emaita negatiboak	-513.000,00
- Ekitaldiko emaitza	-2.049.000,00

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.



10. OHARRA.- FINANTZA TRESNAK

10.a) Finantza aktiboak

Ondoren sozietatearen finantza aktiboak biltzen dituzten partidak xehakatuko ditugu 2008ko abenduaren 31ko datarekin, taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak kontuan hartu gabe:

	<i>Epe luzea</i>	<i>Epe laburra</i>	<i>Guztira</i>
- Maileguak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk (*)	2.743.733,29	637.566,78	3.381.300,07
- Merkataritza zordunak eta beste batzuk (*)	0,00	3.359.597,35	3.359.597,35
- Beste finantza aktibo batzuk (*)	12,22	11.658.570,58	11.658.582,80
- Epe laburrerako aldizkakotzeak	0,00	43.323,38	43.323,38
- Diruzaintza (**)	0,00	302.511,37	302.511,37
GUZTIRA	2.743.745,51	16.001.569,46	18.745.314,97

(*) Zorraren baloreak

(**) Eskudiru likidoa.

Maileguak eta kobratu beharreko beste zor batzuk

Hona emandako maileguak:

<i>Maileguak</i>	<i>Epe luzea</i>	<i>Epe laburra</i>	<i>Guztira</i>
- Higiezinaren salmentaren zioz geroratutako ordainketak.	1.208.624,76	536.731,92	1.745.356,68
- Ordaintzeko dauden kuotak – Finantza errentamenduak (7. oharra)	1.535.108,53	100.834,86	1.635.743,39
- LEIA Fundazioko partaidetzaren kontuak	602.681,59	0,00	602.681,59
GUZTIRA	3.346.414,88	637.566,78	3.983.981,66

<i>Balioaren narriadura</i>	<i>Epe luzea</i>	<i>Epe laburra</i>	<i>Guztira</i>
- LEIA Fundazioko partaidetzaren kontuak	-602.681,59	0,00	-602.681,59
GUZTIRA	-602.681,59	0,00	-602.681,59

SALDO GARBIA	2.743.733,29	637.566,78	3.381.300,07
---------------------	---------------------	-------------------	---------------------



Higiezinaren salmentaren zioz geroratutako ordainketak

Ordaindu gabe dagoen kopurua jasotzen da partida honetan, aurreko ekitaldietan higiezinaren salmentak eraginda.

% 4ko korritua dute, eta ondoko taulan ekitaldika zein mugaegun duten adierazten da:

<i>Ekitaldia</i>	<i>Euroak</i>
2009	536.731,92
2010	132.175,47
2011	132.175,47
2012	132.175,47
2013 eta hurrengoak	810.958,35

Zor horiek bermatuta daude, saldu den higiezinaren jabaria erreserbatuz.

LEIA Fundazioko partaidetzaren kontuak

Epigrafe honen barruan Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatearen 602.684,54 euroko ekarpenak ageri dira, Leia Fundazioarekin egindako partaidetza kontuen kontratu baten arabera eginak. Kontratu hori “Garapen teknologikorako zentroaren fundazioa” proiektua finantzatzeko egin da.

2002. urtean sinatutako kontratu horren arabera, Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietateak 688.778,85 euro emango ditu guztira, urteko 86.097,37 euroko zortzi ekarpen eginez, hori baita proiektua garatzeko epea. 2008ko abenduaren 31n ordaindu gabe egon da urteko bat.



Egindako ekarpenaren kontraprestazio gisa, aipatutako jardueraren emaitza ekonomikoen % 11,11ko balioa duen partaidetza egotzi zaio. Emaidza horiek hitzarmena indarrean dagoen bitartean sortuko dira.

Partaidetza hori kontratua bukatzen denean gauzatuko da, honako arauari jarraiki:

- Emaidza positiboak badaude eta kontratu honen xede den proiektuaren garapen edo zabalkuntzarako inbertsioak egiteko erabiltzen badira, Fundazioak Araban berrikuntza sustatzeko onuragarria den bere beste jardueraren batean inbertitu beharko ditu emaitza horiek. Kasu honetan, egindako ekarpena ez da itzuliko.
- Emaidzak negatiboak izanez gero, partaidetza duen sozietateak egindako ekarpenaren galeren ehuneko hamaika koma hamaika (% 11,11) egotziko da. Kasu honetan, egindako ekarpena ez da itzuliko.
- Partaidetza duen sozietateari egotzi ahal izango zaion galeraren kopurua ez da bere ekarpena baino handiagoa izango.

Baldintza horiei eta kontratuaren iraupenari jarraiki, Sozietateak urteko ekarpenentzako hornidura bat ezartzea erabaki du.



Merkataritza zordunak eta beste batzuk

Epemuga 2009 izanik, jarraian partida hau kontzeptuka banatzen da:

	<i>Euroak</i>
- Merkataritza zordunak	2.880.581,07
- Herri administrazioak – Zordunak	681.477,14
- Narriaduraren hornidura	-202.460,86
SALDO GARBIA	3.359.597,35

Kreditu arriskuak sortutako narriaduraren ondoriozko galerak islatzen dituen kontu zuzentzailearen mugimenduak honela sailkatu dira:

	<i>Euroak</i>
- Hasierako saldoa	229.102,50
- Narriaduraren ondoriozko balio zuzenketak	18.107,79
- Narriadurak lehengoratzea	-44.749,43
- Azken saldoa	202.460,86

Beste finantza aktibo batzuk

Partida hau ondoko kontzeptuen arabera banatu da:

	<i>Epe luzea</i>	<i>Epe laburra</i>	<i>Guztira</i>
- Fidantza eta gordailuak	12,22	543.674,93	543.687,15
- Arabako Foru Aldundiaren gordailua	0,00	11.114.895,65	11.114.895,65
GUZTIRA	12,22	11.658.570,58	11.658.582,80

- Salmentaren baldintzak bete ez direlako saldutako lurzatiak itzultzeko ekintzak gauzatzeko asmoz fidantzak jarri dira.



- Araba Garapen Agentzia, S.A.U.k Arabako Foru Aldundian dirutan gordailu bat du. Ekitaldian % 4,31ko korritua sortu du.

10.b) Finantza pasiboak

Ondoren Sozietatearen finantza pasiboak biltzen dituzten partidak xehakatuko ditugu, 2008ko abenduaren 31ko datarekin:

	<i>Epe luzea</i>	<i>Epe laburra</i>	<i>Guztira</i>
- Zorrak taldeko enpresekin	0,00	5.514.157,61	5.514.157,61
- Zorrak enpresa elkartuekin	0,00	775.719,38	775.719,38
- Merkataritzako hartzekodunak	0,00	7.703.992,72	7.703.992,72
- Herri administrazioak (14. oharra)	0,00	558.554,33	558.554,33
- Beste finantza pasibo batzuk	0,00	178.950,61	178.950,61
GUZTIRA	0,00	14.731.374,65	14.731.374,65

Zor horiek guztiak 2009ko epemuga dute.

